


BEHATXUL[]TIK

Juantxo EGAÑA



ARTURO DELGADO

UDARREGIRI 1966AN EGINDAKO OMENALDIA

1966ko maiatzaren 22an Remigio Mendiburuk Juan Jose Alkain «Udarregi» bertsolariaren omenez egindako eskultura bat inauguratu zuten Usurbilen. Obraren egileaz gainera, besteak beste, Jose Luis Zumeta, Jorge Oteiza, Rafael Ruiz Balerdi eta Jose Antonio Sistiaga artistak ere izan ziren bertan. Irudiak ekitaldieren une bat jaso zuen. Ezkerrean, eserita, Fernando Aire «Xalbador» bertsolari urepeldarra ageri da; haren ondoan, Jon Mugartegi, Berriatukoa, urtarrilean zendua, eta jarraian Joxe Miguel Iztueta «Lazkao Txiki». Hilaren 3an izan zen azken horren heriotzaren 25. urteurrena. Mikrofonoaren aurrean, zutik, Iñaki Eizmendi «Basarri» erreizildar bertsolaria modu xelebrea ageri da, argazki-kamera bat zintzilikatuta, orain arte ezezaguna zitzaion zaletasun bat erakusten. Atzean, Joxan Artze, hura ere duela gutxi hila eta Udarregiren omenezko ekitaldia antolatu zutenetakoa, eta haren ondoan, Manuel Olaizola «Uztapide». Argazia Arturo Delgado Madrilan jaio eta Donostiara bizitzera etorritako argazkilariak egindakoa da.

BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



Kutxateka. FONDO FOTOCAR. RICARDO MARTIN

«EUSKAL ARRAZAREN ARIMA ARTISTIKOA»

1935. urteko urtarrilaren 20an Donostian Bertsolarien Eguna izan zen, Eusko Gaztedik eta Euskaltzaleak antolatuta. Ekitaldian hogeit hamar bertsolarik parte hartu zuten eta eguna 11.00etan abiatu zen jendez lepo betetako Poxpoliña aretoan. Garaiko "El Día" egunkariak gaztelaniaz argitaratu zuenez, «*el día del bertsolari fue una manifestación radiante del alma artística de la raza vasca*». Egunkari horrek kontatzen zuenez, bertsolariak bi ilaratan eseri ziren eta eguneko heroiak izan ziren. «*Los humildes y sencillos aldeanos comenzaron a realizar una labor admirable y asombrosa. De aquellas cabezas tocadas con la boina democrática, de aquellos labios ignaros encuadrados en caras tostadas por el sol, brotaron bertsos y más bertsos llenos de ingenio, sagacidad y no pocas veces de poesía*», kontatzen du garaiko kronika ederrak.

Txapelketa izan zen eta hiru ordu iraun zituen. Azkenean txapela Basarri zarauztarrantzat izan zen. Saria, 100 pezeta eta «Udarregi iratzargailu bikain bat». Saria Aitzolek eman zion Basarri, epaimahaiko kidea zelako. Eta saioaren ondoren izandako bazkarian Euskaltzaleak elkarteko lehendakariak hartu zuen hitza, Telesforo Monzonek.

Goian agertzen den argazkian, ezkerretik eskuinera ageri dira, aurreko ilaran, Lujanbio, Txapel, Txirrita, Zepai eta Basarri. Eta atzeko ilaran, Erauskin, Mintegi, Sarasola, Nekezabal, Tellaetxipi eta Abarategi.

BEHATXUL[]TIK

Juantxo EGAÑA



PACO MARI

1962KO EUSKAL HERRIKO BERTSOLARI TXAPELKETAKO ONENAK

1962ko abenduaren 30ean, frankismo bete-betean, Euskal Herriko Bertsolari Txapelketaren finala jokatu zen Donostiako Astoria antzokian, Euskaltzaindiak antolatuta. Txapelketan 84 bertsolarik hartu zuten parte, eta horietatik 10 sailkatu ziren finalerako. Finala baino egun batzuk lehenago agortu ziren sarrera guztiak. Biharamuneko prentsak zioenez, bazen birsalmentan 500 pezeta ordaintzako prest zegoenik ere. Lazkao Txiki animatzeko hiru autobus abiatu ziren haren herritik. Finala bi fasetan egin zuten, goizekoan eta arratsaldekoan. Goizekoa 11:20ean hasi zen, Euskaltzaindiko kide Alfonso Irigoienek aurkeztuta. Donostian bizi zen Pako Mari madrildarrak egindako argazki honetan Zabaleta, Azpillaga, Lopetegi, Mattin, Lazkao Txiki, Uztapide, Basarri, Arozamena eta Xalbador ageri dira. Mitxelena falta da. Txapelketa Uztapidek irabazi zuen, eta 10.000 pezetako saria eta Gobernu Zibilaren kopa jaso zituen, baita Eibarko Guisasola etxeak damaskinatutako zigarro-kaxa bat ere. Basarri zarauztarra bigarren izan zen, eta, Xalbador, hirugarren. Txapelketa bukatutakoan, Uztapidek esan zuen: «Arima guztia jarri dut eta lehen saria eman didate. Baina Basarri maisu handia da». Abenduaren 31ko "La hoja del lunes" kazetaren izenburuak hauxe zioen: «Uztapide munduko bertsolarien txapeldun hautatu zuten atzo».